

Lau eta erdiko Intxaur Pilota Txapelketa sortu dute Zizurkilen

Elite eta promesa mailako «punta-puntako» pilotariek hartuko dute parte, etzi hasi eta abuztuaren 7ra arte luzatuko den txapelketan; Intxaur pilotalekuan jokatuko dira partidak // 7

«Nire amets txiki hori bete asmoz joan nintzen Atariara»

KARMEN SANZ
‘MUSIKASI’ IRRATSAIOKO GIDARIA

Musika klasikoari buruzko ‘Musikasi’ irrasaioa egin du Ataria Irratian; hurrengo denboraldiari begira, herritarrak animatu ditu bertan parte hartzera // 3

Tolosaldeko bi aizkolarari ariko dira Sherpa.ai txapelketan, etzi Azpeitian

Jexux Mari Mujika ibartarra eta Jon Irazu zizurkildarra lehiatuko dira lehen mailan; azaroan jokatu dute txapelketako finala // 7

Otamendi eta Imaz ariko dira sega txapelketan, igandean

Gipuzkoako Azkartasunezko Sega Txapelketa Zizurkilen jokatu dute, 18:00etan hasita; bost segalari ariko dira emakumezkoetan // 7



JON MIRANDA

EUSKARA

PERIFERIAKOA AZTERGAI

Irene Zaldúa eta Irati Egibar zizurkildarrek Euskal Herriko mugetan bizi diren 13 herritarren lekukotzak jaso dituzte euskararen transmisioa nola eman den aztertzeko; ‘Periferiaren mugak’ izeneko dokumentala osatu dute // 6

LAN ESKAINTZA

Tolosan dagoen Saretik Hizkuntza Zerbitzuak itzulpen-enpresan irailetik aurrera bulegoan lan egiteko itzultzailea behar dugu (batez ere ES-EU lanetarako, baina beste hizkuntza batzuk ere aintzat hartuko ditugu).

SARETIK
HIZKUNTZA ZERBITZUAK
www.saretik.eu

Bidali zure CVa uztailaren 14a baino lehen:
saretik@saretik.eu

Herriko adinekoek udalaren bigarren deia jaso dute

Adinekoen egoera eta beharrak ezagutzeko eta haiei gizarte zerbitzuen berri emateko asmoz, 75 urtetik gorako 132 lagunekin hitz egin dute bigarren goz gizarte zerbitzuek

Erredakzioa Anoeta

Anoetako 75 urtetik gorako 132 lagunekin bigarren hitz egin du Anoetako Udaleko Gizarte Zerbitzuen Sailak. Lehen itzulian datu eta ondorio esanguratsuak jaso zituztenez, bigarren deia egitea erabaki zuten eta bete dituzte aurretik zehaztutako hainbat helburu. «Dei-zerbitzua jaso duten ia guztiek nabarmendu dute oso eroso sentitu direla eta asko eskertu dutela», horrela hitz egin du deien inguruan Amaia Beloki Gizarte Zerbitzuetako langileak.

Azaldu duenez, elkarrizketak «askoz luzeagoak eta sakonagoak» izan dira; antza, bigarren deia izateak galdera pertsonalagoak egitea erraztu du, erabiltzaileen eskariak zehatzagoak izan dira eta hizketan ere lasaia go aritu dira.

Emaitzak kontuan hartuta, zahartzaro aktiboa sustatu behar dela uste du Pello Estanga Anoetako alkateak: «Ezinbestean zaindu behar dira osasunaren



132 pertsonak jaso dute Gizarte Zerbitzuen deia. ATARIA

arlo ezberdinak: bai osasun emozionala, eta baita fisikoa ere». Deien dinamikari esker adinekoen beharrak eta errealitatea hobeto ezagutzen dituztela ere gehitu du, eta horrela errazagoa dela horien arabera proposamenak lantzea.

Telefono deien dinamika duela hilabete batzuk jarri zuen martxan Anoetako Udalak, eta hainbat helburu zituen: herriko adinekoen egoera gertutik ezagutzea, pertsona horiei udaleko gizarte zerbitzuen berri ematea eta, behin haien beharrak ezagu-

tuta, horiek asetzeko proposamenak egitea. Bigarren deiarekin egiaztatu dute lehen itzulian bi helburu lortu zirela: batetik, adinekoen egoera eta beharrak ezagutu zituen udalak haiei zuzenean galdetuta; eta, bestetik, gizarte zerbitzuen berri eman zitzaien adinekoek.

Beharrei erantzuteko irtenbideei dagokienez, udalaren esanetan bigarren itzulian lehena bezain «aberasgarria» izan da, erantzun zehatzek erraztu egin baitute behar horiei erantzuteko egitasmoak lantzea.

Alurr dantza taldeko eskoletan izena emateko aukera

IBARRA // Alurr dantza taldeak ireki du jada matrikulatze epea eta iraila bukaerara arte egongo da zabalik. Ohiko eskolez gain, talde batzuk elkar lotuko dituztela eta balleteko zein helduei zuzendutako eskolak dituztela esan dute. *Alurr.eus* webgunearen bidez edo kultur etxera joan da eman daiteke izena.

Konponketak egingo dituzte Danena alboko aparkalekuan

ZIZURKIL // Gaur hasiko dituzte Danena futbol zelaia alboko aparkalekua konpontzeko lanak eta beraz ezin da ibilgailurik aparkatu. Argiteria jarri ahal izateko hodiak pasako dituzte eta zorua txukunduko dute. Datorren astean amaituko dituzte lanak, eta aparkalekua erabilgarri egongo da berriro.



EMAKUMEEN SARETZA

Saiaz Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta Atxondora bidaia egin zuten, larunbatean, Albiztur, Errezil, Bidania-Goiatz eta Beizamako emakumeek. Amillena emakumeen kooperatiba ezagutzeko aukera izan zuten. «Garai zail hauetan elkarrekin egoteko behar handia dago», azaldu dute mankomunitatetik. ATARIA

19 positibo izan dira Tolosaldean azken egunean

Lizartzako Udalak esan du aurten ere ez dituztela ohiko festak izango; kultur ekitaldiak egingo dituzte irailean zehar

Erredakzioa Tolosa

Azken datuen arabera, 19 positibo atzeman dituzte Tolosaldean; Tolosan 5, Amasa-Villabonan 4,

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefono zenbakira.

Zizurkilan 3, Ikaztegieta 2 eta Adunan, Alkizan, Altzon, Larraulen eta Orendainen positibo bana.

Osasun Sailak esan du 9.498 test diagnostiko egin zituztela herenegun, eta horietatik, 788 (%8,3) positiboak izan zirela. Gipuzkoan, 251 atzeman zituzten, tartean, 19 Tolosaldean.

5.000 biztanle baino gehiago dituzten Tolosaldeko herrien kasuan, Amasa-Villabona (743) eta Tolosa (716) kolore gorrian daude.

Osasun eremuei dagokienez, Alegiakoa (357) eta Ibarakoa (395) kolore laranja daude, eta

Tolosakoa (662) eta Villabonakoa (688) gorrian. Tolosaldeko ESIa (499) laranja dago.

Ospitaleen egoerari dagokienez, COVIDaren ondorioz 26 pertsona ospitaleratu zituzten atzo, denara, 87 pertsona daude ospitaleetan, eta COVIDa duten 23 pertsona ZIUUn daude.

Egoera ikusita Lizartzako Udalak esan du aurten ere ez dituztela ohiko festak antolatuko eta jaien ordez hainbat kultur ekitaldi izango direla irailean zehar. «Gisa honetako erabakia hartzea mingarria den arren, arduraz jokatzea ezinbestekoa dugu», esan du udalak.



OROIMEN HISTORIKOA

Adunako, Asteasuko eta Zizurkilgo udalek bultzatuta Saseta Defentsa Sistemaren inguruan antolatzen diren auzolanderien programazioaren barruan, hitzaldi bat eskaini zuen ostiralean Adunan Ione Zuloaga Aranzadiko kideak. Elkarre horrek antolatzen ditu urtero auzolanderiak eta herrika burututako ikerketetan lortutako dokumentazio historikoa eta lekukotzak aurkeztu zituen. ATARIA

«Musika klasikoarekin irratsaio bat egitea plazera izan da niretzat»

KARMEN SANZ
'MUSIKASI' SAIOKO GIDARIA

Astero astero musika klasikoari buruzko 'Musikasi' saioa gidatu du Ataria Irratian tolosarrak; esperientzia oso polita izan dela dio, jarraitzeko prest dagoela, eta jendea animatu du parte hartzera

Axier Imaz Tolosa

ATARIA IRRATIKO aurtengo denboraldia bukatu da, eta abuztuan euskal musika entzungai izan aurretik, uztaila bukaera bitarte denboraldian zehar entzungai izan diren hainbat saio berriro ere entzuteko aukera izango da.

Bitartean, ATARIA-ko lantaldeak denboraldi berria prestatzeari ekingo dio. Aurreko denboraldietan bezala, hurrengoan ere herritarrek eskualdeko irratiko ateak zabalik izango dituzte, saioak egin edota kolaboratzaile moduan parte hartzeko. Karmen Sanz tolosarrak musika klasiko eta irratiarekiko zaletasuna uztartu ahal izan ditu azken denboraldian, *Musikasi* saioa gidatuz.

30 saio egin ditu 'Musikasi'-k. Oso pozik nago. Gogoan dut ATARIA-ko erredakziora nola joan nintzen irratiarako nuen ideia azaltzera. Lehenago ez nuen sekula irratsaio bat egin, eta beldur pixka bat banuen. Hasieran hamabostean behin egitea pentsatu nuen, baina gero astero egin nezakeela erabaki nuen, eta konturatzerako 30 saio egin ditut. Ez nuen uste gai izango nintzenik.

Nolatan animatu zinen musika klasikoaren inguruko saio bat egitera?

Zaletasun asko ditut, eta horien artean, ikus-entzunezko munduak asko erakartzen nau. Eskolan-eta egin dut irradian zerbait, edo antzerkian, baina, bestela ez. Jubilazioa hartu berri nuela aprobetxatu nuen ATARIA-ra joan, eta nire amets txiki hori betetzeko. Gainera, herriari edo eskualdeari zerbait eman nahi nion nire denbora librean.

Eta irratsaioaren nondik norakoak?

Buruari bueltaka ari nintzela, musika klasikoari buruzkoa izan behar zuela pentsatu nuen. Musika modernoa edo euskal musika irradian jorratzen zela ikusita, eta klasikoan hutsunea egon zitekeelakoan hori proposatzea erabaki nuen. Gainera, ni eskolatan musika irakaslea izan naiz, eta asko entzun dut musika klasiko.

Eta izena?

Lagun batek horrela bota zidan, polita iruditu zitzaidan, eta aurrera.

Mikrofonoarekin hitz egitea gustatzen zaizu.

Mikrofonoa pila bat gustatzen zait. Inauterietan, esaterako, mikrofonoa eramaten dut kuadrillan. Kontuan hartu behar da ni euskaldun berria naizela, eta agian, euskaraz ez dut gaztelaniarekin izan dezakedan jariora edo freskotasuna. Hizkuntza aberatsagoa banu ziurrenik la-saioa egingo nuke.

Esatari moduan ez ezik, saioaren ekoizpenean kontrolean aritu zara.

Bai. Izan ere, esatari moduan aritzea gustatzen zait, baina, kontrolean aritzea ere bai. Kontroleko aparatua gogoko ditut.

Erraza izan al da?

Eskolako irradian zerbait egin nuenez ez zait hain zaila egin. Nahasketa mahaia edota grabatzeko programa ez zaizkit hain arrotz egin. Denbora pixka bat behar da guztia ondo hartzeko, baina, gustatuz gero, irratsaio bat edonork egin dezakeela iruditzen zait. Gainera, edozein zailantza edo arazo izanez gero, ATARIA-ko lantaldea han dago beti laguntzeko.

Espero zenuen esperientzia izan al da?

Musika klasiko asko gustatzen



ATARIA

zait, eta Hodeiertzen abestutakoa ere banaiz. Beraz, asko gozatu dut irratsaioak egiten. Gogoan dut txikitan asko gustatzen zitzaidala abesbatza zuzendaria-rena egitea. Josteko makilak hartzen nituen, eta horiek eragiten egoten nintzen. Musika klasikoarekin irratsaio bat egitea niretzat plazera izan da.

Denboraldi bat egin duzu. Jarraipena emango al diozu?

Oraindik ez dut antolatu hurrengo ikasturtea, baina, nik ez dut atea ixten oso gustuko lana izan baita. Agian astero egin ordez hamabostean behin egiten jarraituko nuke. Beldurra izaten dugu horrelako erronka berri baten aurrean, baina, ziur naiz irrati gustuko duen eta esateko asko duen jendea dagoela, beraz animatu egingo nituzke ni bezala pauso bat aurrera ematera.



Manu Olano, Txepe Agirrezabala, Izaskun Elizaran, Malentxo Arrospide, Marimi Ugalde eta Joxe Agustin Arrietak hamabostean behin hartu dute parte ATARIA IRRATIKO solasaldietan. Denboraldia amaituta, estudiotik kanpo elkartu dira, Lizartzan, lagunarteko giroan egunpasa egiteko. ATARIA

Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

«Gizakiaren identitatea galtzen da historia galtzen bada»

ITZIAR ELGUEA ISASI LEKAIMEA

Jesusen Zerbitzariak kongregazioko lekaime egin zen gaztetan eta batera eta bestera ibili da, ezinduen zaintza lanbide; egun, Tolosako Eguneke Zentroan aritzen da; Tolosaldepedia proiektuari ere bere ekarpena egin dio



A.G.

Agurtzane Belaunzarán Tolosa

Gorputzak eta arimak laguntzen dioten bitartean lanean jarraitzeko asmoa du Itziar Elguea Isasi (Bilbo, 1950). Filosofia eta Letrak ikasi, Historian berezitu eta Erizaintzan Lizentziatu zen gero. 22 urte zituela erabaki zuen moja izatea, etxean erabakiak hautsak harrotu bazituen ere. Erroman 28 urte egin zituen, as- tean zehar erizain eta astebukae- ratan gida turistiko lanetan. Az- ken urteetan Tolosa du bizileku eta Eguneke Zentroan dihardu lanean. Emakume dinamikoa eta polifazetikoa da Elguea.

Sortu zenetik ezinduei lagun- tza ematea du helburu zuen Kongregazioak. Zaintza erdi- gunean aspaldi jarri zenuten zuek.

Osasun langileak gara Kongrega- zioko kideak eta zaintzaz ardura- tu izan gara 1871n Bilbon sortu zen lehen komentutik. Tolosako Eguneke Zentroa gure etxean dago eta dependentzia maila oso handia duten egoiliarak etor- tzen dira gurera. 30 ditugu orain eta beraien zaintzaz arduratzen gara; jolasak egiten ditugu, mu- sika entzuten dugu, abestu, es- kulanak... lan gogorra da, baina asko asebetetzen nau egiten du- danak.

Maitasuna eta sakrifizioa da zuen leloa.

Jaungoikoari diogun maitasu- nagatik, gu geu sakrifikatu gara gustuko gauzetatik eta gure le- hentasunetatik, beste batzuei mesede egin eta laguntzearren.

Sakrifizioak, ordea, badu zen- tzu negatiboa.

Bizitzan egin dudana eta egin ez dudanak osatzen dute orain nai- zena. Uko egin nionak eta moja bizimoduak eman didanak. Emakume zoriontsua naiz azken batean.

Gurasoek ikasketek garrantzi handia eman omen zien.

Hiru senide gara eta gurasoek ikasketak eman nahi zizkiguten. Dirurik ez zigutela utziko zioten, baina herentzian unibertsitate- ko ikasketak eman zizkiguten. Jakintzari balio handia ematen zioten. Beraz, Deustuko uniber- tsitatean, Filosofia eta letrak ika-

si nuen eta gero Historian berezi- tu nintzen. Amaitzean, moja izan nahi nuela nuen buruan, eta gurasoentzako kolpe handia izan zen. Gure etxean ez ginen bereziki erlijiosoak, baina nik, 22 urte nituelarik, barruan ezinego- na nuen eta lekaime izateko de- sira.

Bilboko Jesusen Zerbitzariak Komentuan sartu zinen or- duan.

Urte gutxi egin nituen han, eta etxera itzuli nintzen. Gurasoen poza handia izan zen!

Krisiren bat eduki al zenuen?

Komentuan nik moja izateko ez nuela balio erabaki zuten eta etxera joatea gomendatu zida- ten. Agian galdera gehiegi egiten nituen, jakin-mina nuen, ez nin- tzen beti errezoan egoten eta

«1892. urtean haurtzaindegia ireki zen gure etxean XX. mende ia amaierara arte»

«Milaka urtez oso ezberdinak diren sinesmenekin bizi izan dira, baina denen gakoa on egitea da»

gauzen zergatia jakitea gusta- tzen zitzaidan; ez zuten asmatu nire kuriositatea asebetetzen.

Eta ikasten jarraitu zenuen.

Medikuntza ikasi nahi nuen, bai- na karrera luzeegia zela irudi- tzen zitzaidan nik nuen adinera- ko, 25 urte nituen orduan. Guru- tzetan Erizaintza ikasi nuen, EHUKo fakultatea artean sortze- ko zegoen.

Titulua eskuan zenuela ko- mentura itzuli zinen berriro.

Gurutzetan lan postua banuen arren, komentuko atea kax-kax jo eta beste aukera bat eman zi- daten. Nik moja izan nahi nuen eta azken batean bizitza horre- ta moldatu behar izan nuen, asko galdetu gabe eta nire jakin- minak plazaratu gabe. Oso per- tsona irekia eta jakin-minez be- terikoa nintzen. Ikasketak ni- tuen eta nire buruari galdera asko egiten erakutsi zidan uni- bertsitatean ikasteak.

ANOETAKO HERRI IKASTOLAK

2021-2022 ikasturterako plangintza akademikoan azken unean sortutako beharren ondorioz, ALDI BATERAKO ondorengo eskaintza du Anoetako Herri Ikastolak:

- HHko HEZITZAILEA (lanaldi partziala)
- LHrako IRAKASLE TUTOREA

Pedagogia eta metodologia berrien ezagutza eta esperientzia baloratuko da.

- DBHrako HIZKUNTZETAKO IRAKASLEA Ingeles C1 maila edo baliokidea derrigorrezkoa. (lanaldi partziala)

Kasu guztietan beharrezkoa euskarazko C1 titulua.

Curriculumak e-mailez bidali behar dira
anoeta@ikastola.eus helbidera uztaillak 14rako.

Denbora gutxi egin zenuen Bilbon hala ere.

Zorte handia izan nuen, Erromara bidali baininduten! 27 urte egin nituen Erroman, 55 urterekin berriro hona bidali ninduten arte.

Nolakoa zen Erroma 28 urteko neska gazte haren begietan?

Zoragarria zen eta bereziki niretzat. Historia ikasketak egin ostean, barneratu nuen informazio guzti hura berraurkitu nuen, liburuetan ikasi nuen hura ukitzeko, ikusteko eta gozatzeko aukera izan nuen. Erromako txoko guztiak ezagutzera iritsi nintzen, beti aurkitzen nuen zerbait ederra.

Vatikanoan ere lan egin duzu.

Gidari lanak egin nituen Vatikanoan. Zoragarria izan zen, espainolez eta italiarrez gidatzen nuen. 1983an hasi eta ia 2000. urtera arte aritu nintzen. Hasiera batean Vatikanoan bakarrik egiten nituen gidari lanak, gero errepertorioa zabaltzeko eta Erroman egiten nuen lan. Hiria handia da eta arkitektura aldetik aukera zabala du: Erdi Arokoa, klasisikoa, errenazentista, barrokoa... Abitua soinean nuela eramaten nituen taldeak.

Emakume oso polifazetikoa eta dinamikoa zara.

Oso okupatua bizitu nintzen. Horretaz gain, kongregazioan aldizkari bat genuen eta nik idazten nuen guztia, hein batean editorea, kazetaria eta argazkilaria ere banintzen. Barne liburu bat idazteko ere eskatu zidaten, Bilbo, Gasteiz, Burgos eta Erroman kongregazioak izan zituen lehen etxeen inguruan. Azken batean, historia galtzen bada, gizakiaren identitatea galtzen da.

Tolosaldepedian ere zure ekarpena egiten ari zara.

Tolosan gure kongregazioak duen etxearen historiaren informazioa idatzi dut bertan. Horixe izan da nire hondar alea Tolosaldeko informazio bilketan. Gure etxea 1886. urtean Tolosan zer-

gatik sortu zen kontatu dut Tolosaldepedian.

Eta izan zituen zereginak ere zerrendatu dituzu.

Halaxe da. Hasiera hartan tifusa, kolera, baztanga eta gripea zituzten gaixoak zaintzen ziren. Egoera soziala aldatzean eta emakumea lan munduan sartzean, haurrak zaintzeko beharra zegoela ikusirik, 1892an haurtzainde-

gia ireki zen gure etxean, eta XX. mende ia amaiera arte egon da. Eguneke zentroa berriz duela 22 urte ireki genuen.

Denbora librean zer egitea duzu gustuko?

Irakurle amorratua naiz. Eskuar-tean dudari elektronikoak nobelaz josia dut.

Gaur egungo migrazio mugimenduarekin, gizartean di-

bertsitate erlijiosoa agerikoa da. Nola bizi duzu hori abitu zuritik?

Sinesmen guztiak, bizitza ulertzeko eta interpretatzeko moduz ezberdinak aberastasuna dira. Pentsatzen jartzekoa da eta gure buruari galdetzekoa: zer erakutsi eta eman diezagukete? Lehenik eta behin, jakituria ezberdina, sinesmen ezberdinak... Emakume

musulmanak beloa jantzita ikusten ditudanean, beraiek nitaz zer pentsatzen duten galdetzen diot neure buruari!

Erlijio guztien oinarrian gizatasuna dago.

Jainkoak gizatasun handia du.

Baina Jainkoak forma eta izen ezberdinak hartzen ditu munduan.

Ados, baina ez dago inongo ezberdintasunik, gizakiak gara ezberdintasunak egiten ditugunak. Nik Jainkoa deitzen diot, besteak Jabe edo Ala akaso. Geografikoki leku ezberdinetan jaiotak garenez, kultura ezberdinak jaso ditugu, nik ezin dut pentsatu beste kontinenteetan pentsatzen duten moduan. Milaka urtez, nirearengatik oso ezberdinak diren sinismenekin bizi izan dira, baina denen gakoa on egitea da.

Kamerunen ere kongregazioak badu etxe bat.

Pentsa ezazu kamerundarren sinismenak eta gureak zein ezberdinak diren. Haiek animistak dira, indar gorena naturan dagoela sinesten dute eta niretzako naturaren indarra, Jesusen indarraren errepresentazioa da. Nolabait, sinismen guztietan ulertu ezin dugun horri esplikazioak bilatzen saiatzen gara. Gure jakinduriatik harago dago eta forma eta izen ezberdinak emanez saiatzen gara ulertzen.

Kristautasuna beheraldian dagoela esango al zenuke, gero eta apaiz eta moja gutxiago daudela kontuan hartuta?

Bizitza ikaragarri aldatu da eta egun libertatea nahi du jendeak, dirua edukitzea... Gure bizitza estiloan gauza asko utzi behar dituzu alde batera, Jainkoari diogun maitasunagatik eta gaur egun hori zaila da.

Zerbait egin gabeko penarik ba al duzu?

Euskararik ez nuen etxean jaso eta kanpoan pasa ditut urte asko. Gidabaimena lortzerik ere ez nuen izan hiru azterketa egin ostean.



A.G.



1 BBK Karpin Abentura FAUNAREN BABES ZENTRUA

Bi laguntzako bina sarrera



Karrantza
infokarpin@gmail.com
626 622 245

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51

2 LEARTIBAI ONDAREAREN KALITATEZKO KONTSERBA ETA PRODUKTU SORTA

Laneko Koop. Elkartea
Okamikako industrialdea, 2 5 A. 48289
Gizaburuaga.94 684 20 26
bbkazoka.eus/eus/kolekzioak/laneko

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 TXITXIRIO euskaraz eginak

Kamixeta bana bi laguntzat



www.txitxirio.eus
656 788 351

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53

Parte hartzeko deitu 902-82 02 40 telefono zenbakira edo sartu www.ataria.eus webgunean • Aste honetako asteazken, ostegun eta ostiral goizean. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi dute Irene Zaldua eta Irati Egibar zizurkildarrek; Gradu amaierako lan gisa, ahotsa eman diete askotan ahanzturan geratzen diren euskaldunei

Euskararen muga periferiakoak

Jon Miranda Zizurkil

Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi dute Mondragon Unibertsitatean eta gradu amaierako lana prestatu dute Irene Zaldua Tapiak (Zizurkil, 1997) eta Irati Egibar Izetak (Zizurkil, 1999), Ekhiñe Aizkorbe ikaskide nafarrarekin batera. Unibertsitatean ikerketa lan bat aurkeztu dute, eta ikerlanarekin lotutako proiektua gauzatu dute, kasu honetan, *Ahotsak.eus* atariarentzat. «Guk ezagutzen genuen proiektu horretan egiten duten lana eta zuzenean jo genuen webguneko arduradunengana. Oso pozik hartu zuten gure egitasmoa eta esan ziguten guk egindako lanak balio izan diela eurek orain arte jorratu duten eremua zabaltzeko», esan du Zalduak.

Mondragon Unibertsitatean jardun duten bitartean euskararekiko bizipen ezberdinak ezagutu dituzte ikaskideen artean eta Zalduak eta Egibarrek aitortu dute, eurek erdigunetik, harreman «natural eta egunerokoa» dutela euskararekin. «Ikusten genuen gure ikaskide guztiek ez zutela euskara gure modu berean bizi eta ahalegin bat eskatzen zielela gure hizkuntzan jarduteak, edo haien zientzia behintzat, hautu kontziente bat zela euskaraz aritzea. Zergatietan gehiago arakatzeko nahiak bultzatu gintuen lan honetara», azaldu du Zalduak. Gradu amaierako lana gauzatzeko euskararen periferian bizi diren 13 lagunen testigantzak jaso dituzte bidez.

Euskararen erdigunetik aparte, periferiako euskal lurretan euskararen transmisioa nola eman den jakiteko jo zuten elkarriketatuengana. «Errealitate hori nolakoa den jakin nahi genuen, euskaraz egunero bizitzeko zein ahalegin egin behar duten kontatu digute. Gu gara, seguruenik, burbuila batean bizi garenak. Euskara ez dago egoera normalizatuan eta normaltasun eza periferiako pertsona hauetan gorpuzten da».

Testuinguru historikoa eta marko teorikoa aztertu dituzte ikerketa abiatzeko. Araba, Bizkaia, Nafarroa, Nafarroa Beherea,



Irene Zaldua eta Irati Egibar Zizurkilgo Herriguneko Pello Mari Otaño plazan, herenegun. J.M.

Zuberoa eta Lapurdin euskararen transmisioan eman den etena, biziberritzeko zein tresna erabili dituzten eta gaur egungo egoera aztertu dute. Abiapuntu horretatik jo dute 13 elkarriketatuengana. «Haien bizipenetatik abiatu eta testigantza horiei eman nahi genien balioa», esan du Egibarrek. «Eta aitortza bat egin», gaineratu du Zalduak, «askotan ahanzturan gelditzen diren euskaldunei ahotsa eman nahi genien, haiek egiten duten ahalegina goraipatzeko».

Euskal Herriko mugetara jo dute hiru gazteek testigantza bila. Barkoxen, Erronkarin, Artziniegan, Oionen, Artzentalesen edota Gueñesen bizi diren euskaldunak elkarriketatu dituzte. «Guztiek euskara edo galdu edo ia ahaztu dute urte luzeetan eta momentu batean hautu kontziente bat egin dute hizkuntza berreskuratzeko. Aukera hori gainera ez da erraza izan haien zientzia, ahalegin bat eskatu die haien ingurunea ez delako euskalduna».

Egindako elkarriketen zatiak *Ahotsak.eus* webgunean zintzilikatu dituzte eta solasaldi horien pasarteekin *Periferiaren mugak* izeneko ordu erdi pasatxoko dokumentala osatu dute. Etzi, adibidez, Urruñako Itsasmendi zine-

man aurkeztuko dute 18:30etik aurrera. «Gure asmoa da dokumentala toki gehiagotan aurkezte eta ondoren *Ahotsak.eus*-en ikusgai jartzea», aipatu dute egileek.

EUSKARAREKIKO GRINA

Euskarak duen estatus juridiko eta legalaren arabera ere neurtu daiteke erdigunea eta periferiaren arteko muga, Egibarren usteetan. «Euskara ofiziala ez den tokietan, Nafarroako hegoaldean edota Ipar Euskal Herrian, zailtasunak handiagoak dira». Araban, Bizkaian edota Nafarroako zenbait eremutan nahiz eta euskararen ofizialtasuna bermatuta egon, eta nahiz eta hizkuntza transmititu den, erabileraren datuak oso baxuak direla frogatu ahal izan dute gradu amaierako lan honetan. «Ez da estatus legala bakarrik, ingurunea ere behar du euskarak, eta batez ere, zentralitatea», esan du Egibarrek.

Bi ikasleek, behin lana amaituta, erdigunetik beste modu batera begiratzen diote periferiari. «Lanak balio izan digu konturatzeko batzuk egunero borrokatu behar izaten dutela euskaraz bizitzeko, hautu kontzientea egin behar izaten dutela eta irmo eusten diotela erabakiari, ingurunea kontra

eduki arren». Periferiak babesten du zentroa. Ondorio horietara iritsi dira bi zizurkildarrak: «Euskararen hemen galdu ez bada da beste leku batzuetan lehenago galdu delako, suhesi bezala funtzionatu duelako periferiak».

«Ahanzturan geratzen diren euskaldunei ahotsa eman nahi genien eta aitortza bat egin»

IRENE ZALDUA TAPIA
EGILEA

«Ez da estatus legala bakarrik, ingurunea ere behar du euskarak, eta batez ere, zentralitatea»


IRATI EGIBAR IZETA
EGILEA

Irakasbide bat baino gehiago atera dutela aitortu du Egibarrek. «Hemen indartsu mantentzen da euskara, baina adi egon behar dugu. Euskara zikintzen ari da, geroz eta erdarakada gehiago sartzen ditugu hitz egiterakoan, eta hori erabileraren gainbeheraren bezpera izan liteke». Badaezpada alarma piztuta edukitzea komeni dela dio Zalduak eta periferiako jendeak duen «gogoberotasunaz»

kutsatzea izan daiteke formula euskararen aldeko tentsioari eusteko.

«Gogo eta grina hori ikustea oso pozgarria izan da guretzat», esan du Egibarrek. «Mugaren ondoan egoteak badakartza gauza onak ere, eta askotan erdigunetik gure ziborrari begira egoten gara gu. Ez legoke gaizki haiek egiten dutenari arreta jartzea». Geografikoki Euskal Herria gehiago ezagutzeko aukera izan duela nabarmendu du Zalduak eta begirada zabaltzeko: «Duela urtebete, lan hau egiten hasi aurretik ez nuke jakingo zer esan, ez dut uste gai honen inguruko iritzirik izango nukeenik. Ikuspegia zabaltzeko balio izan dit».

Zaldua kameran, Aizkorbe audioan eta Egibar galderak egiten. Horrela banatu dituzte egitekoak gradu amaierako lana gauzatzeko orduan. Gustura daude hirurak unibertsitatean jasotako balorazioarekin. «Lan biribila dela eta gauza asko jasotzen ditugula esan digute. Gure helburua ere bazen lan hau hemen geratzeko, hemen-dik urte batzuetara norbaitek zer-bait ikertu nahi baldin badu erreferentzia bat izan dezan. Orain arte gutxi ikertu da mugako leku hauetan euskarak izan duen bilakaeraz».



Iban Lizarraga kirol zinegotziak eta Ainhoa Larrea udaleko teknikariak aurkeztu zuten txapelketa, atzo. E. MAIZ

Lau eta erdiko Intxaur Txapelketa sortu dute Zizurkilen

Elite eta promesa mailako pilotarientzat kirol hitzordu berria sortu dute Zizurkilen; etzi hasi eta abuztuaren 7a bitartean, Intxaur pilotalekuan jokatuko dira partidak

Eneritz Maiz Etxarri Zizurkil

Zailtasunez betetako garaia izanagatik, kirol hitzordu berria sortu dute Zizurkilen: Lau eta erdiko Intxaur Txapelketa. Elite eta promesa mailako pilotariek jokatu dute txapelketa, eta aurkezpen ekitaldian «oso hitzordu indartsua» dela azpimarratu du Iban Lizarraga kirol zinegotziak.

Uztailaren 16tik abuztuaren 7ra jokatuko da txapelketa. Lau eta erdiko modalitatean une honetan «punta-puntan» dabilzan pilotarien jokoak ikusteko aukera izango dela esan du Lizarragak. Honela, zaletuei goi mailako jokoz gozatzeko aukera eskainiko diete.

Final-laurdenetan ekingo diote lehiari, bi asteburutan jokatuko dituzte, eta uztailaren amaieran izango dira finalaurrekoak. Eta abuztuaren 7ko finalarekin emango zaio amaiera.

1989an eraikia den Intxaur pilotalekuak eman dio izena txapelketari, eta bertan jokatuko dira partida guztiak. Kirol zinegotziak aipatu duenez, herriko pilotari eta pilotazaleen bilgune nagusia da pilotalekua. Eta gaineratu du zizurkildarrek txapelketa gertutik jarraitzeko arrazoi

bat izango dutela, «herritarra den Julen Alberdi pilotariak parte hartuko baitu txapelketan».

Zizurkil herrian bada pilotarako sena, eta «tarte berezia» duela nabarmendu du Ainhoa Larrea udaleko teknikariak. Ziotza Pilota Eskola dute herrian, eta besteak beste, Julen Alberdi pilotaria bera da pilota eskolako entrenatzailea. Afizionatuen mailako txapelketa hau antolatzeko Zizurkilgo Udalak eta pilota eskolak Pilotarien Txokoaren lagun-

tza izan dute. Euskal Herriko eta Errioxako momentuko pilotari esanguratsuenak bertara ekartzeari lortu dutela esan du Larreak. Etorkizunera begira jarrita, txapelketarekin lanean jarraituko dutela adierazi dute, emakumeekin ere txapelketa antolatu nahi baitute.

Finalerdiak eta finala ikusteko sarrerak erosi beharko dira. Zizurkilgo udal bulegoetan egongo dira salgai, eta hiru euro ordaindu beharko da bakoitza.

LAU ETA ERDIKO INTXAUR TXAPELKETA

Uztailak 16, ostirala: 19:00

Elite maila. Xabi Urbieta (Behar Zana) / Iñaki Elola (Aurrera Tolosa).

Promesa maila. Javi Oskoz (Obereña) / Beñat Senar (Lapke).

Uztailak 18, igandea: 12:00

Elite maila. David Landa (Oberena) / Iker Espinal (Ugarte).

Promesa maila. Iker Amiano (Aurrera Tolosa) / Josu Igoa (Oberena).

Uztailak 24, larunbata: 20:00

Elite maila. Paul Ojuel (Hernani) / Julen Alberdi (Aurrera Tolosa).

Promesa maila. Aingeru Dela Fuente (Buruzgain) / Sergio Gutierrez (San Cosme).

Uztailak 25, igandea: 12:00

Elite maila. Xabi Sancho (Pagazpe) / Eneko Labaka (Aurrera Tolosa).

Promesa maila. Julio Fernandez (San Cosme) / Aitor Altuna (Aurrera Tolosa).

Finalaurrekoak

Uztailak 31, larunbata. 20:00etan hasita, uztailaren 6ko irabazleak, uztailaren 18ko irabazleak aurka.

Abuztuak 1, igandea. Uztailaren 24ko irabazleak, uztailaren 25eko irabazleak aurka.

Finala

Abuztuak 7, larunbata. 20:00etan hasitako jokatuco dira bi finalak.

Eskualdeko bi aizkolari, Sherpai.ai Binakako Aizkolari Txapelketan

Hiru mailatan banatuta jokatuco da txapelketa Azpeitian, etzi; lehen mailan Jexux Mari Mujika ibartarra eta Jon Irazu zizurkildarra ariko dira, Larrañaga eta Rekondo lagun hartuta

E. Maiz

Sherpai.ai Binakako Aizkolari Txapelketa Nagusia, etzi, Azpeitian jokatuco da. Iaz aizkolariak bultzatuko proiektuak jarraipena izango du, eta lehen mailako 10 aizkolari eta promozio mailako zortzik parte hartuko dute. Aurtengo berrikuntzak emakumeen txapelketa dakar, eta sei aizkolari lehiatuco dira. Lehen mailako kategorian lehiatuco dira parte hartuko duten eskualdeko bi aizkolariak: Mujika ibartarra Larrañagarekin bikotea osatuta, eta Irazu zizurkildarra Rekondo lagun duela.

Izarraitz pilotalekuan izango da, eta ikusleek bertatik bertara gozatzeko aukera izango dute. Bikoteak kategorien arabera ariko dira, eta txanda libreko modalitatean enbor sorta desberdinak ebaki beharko dituzte.

Promozio mailako bikoteek emango diote hasiera jaialdiari, eta lau kana-erdiko, 60 ontzako hiru enbor eta bi oinbiko ebaki beharko dituzte. Hauek dira lau bikoteak osatzen dituzten aizkolariak: Larrea III - Zelai IV; Jauregi - Eloy Corchero; Julen Kaña-

mares - Pellejero eta Eneko Saralegi - Aratz Mugerza.

Jarraian emakumezkoen txanda izango da, eta lau enborren aurka ari beharko dute, bi oinbiko eta 45 ontzako bi enbor ebakitzeko. Zelai III.a eta Anso-rreri; Tanco eta Maika; eta Arruti eta Julia dira parte hartuko duten hiru bikoteak.

Jaialdiko azken lehia lehen mailako kategoriakoa izango da. Iker Vicente eta Azurmendi; Larrañaga eta Mujika; Otaño eta Ugaitz Mugertza; Irazu eta Rekondo; eta Txikia IV eta Atutxa I.a ariko dira. Hauek, hiru diametroko 18 enborrekin ariko dira, 8 kana-erdiko, 60 ontzako sei enbor eta lau oinbiko, hain juxtu.

Promozio eta lehen mailetan sailkapen errondetan jarraituko dute udazkenean, eta etzikoa binakako txapelketako proba sortako lehen txapelketa izango da.

Txapelketa final handi batekin amaituko da azaroan, eta honela bigarren urtez Sherpa.ai Aizkolari Txapelketa Nagusiko txapel-dun absolutua aterako da. Bakarkako txapelketa udazkenean jokatuco dute.

Azkartasunezko Segatxapelketa jokatuco da Zizurkilen, igandean

Erredakzioa Zizurkil

Gipuzkoako Azkartasunezko Segatxapelketa jokatuco da igandean, Zizurkilen. Nekola baserriko lurretan izango da, eta emakumezkoen eta gizonezkoen mailan lehiatuco dira. 18:00etan hasiko da lehia.

Emakumezkoetan bost segalari izango dira parte hartuko dutenak, eta gizonezkoetan berriz lau. Emakumezkoetan Ann Ma-

lou Henriksen, Garazi Urkiola, Jugatx Agirre, Ainara Otamendi ibartarra eta Alaitz Imaz hernialdetarra ariko dira belarra nork ebaki azkarrago.

Aldiz, gizonezkoen kasuan, Suharri Irazustabarrena, Julen Gabirondo, Jon Otegi eta Mikel Lizartza tolosarrak neurtuko dituzte indarrak.

Guztiek Gipuzkoako azkartasunezko txapela lortu nahiko dute.



ASTEAZKENA, 2021EKO UZTAILAK 14
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 14

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Mantentze gim-nasia, 09:30ean, ikastolako patioan.
Tolosa. Mugi Tolosa, Zerkausitik, 10:30ean abiatuta.
Larraul. Kokedama tailerra: material bila 16:00etan; ondoren, sortzea.
Amasa-Villabona. Laser Tag, Etxe Ondon, 16:00etan.
Amasa-Villabona. Loatzo musika eskolaren *Anakruxa*, 19:00etan, Onddo plazan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Baserritik. Lehen sektorea.
10:00. Amalurra. Ingurumena.
11:00. Postalak. Bidaien tarte.
12:00. Letren errepublika. Literaturari buruzko saioa.
15:00. Eleak eta beleak. Antzerkia.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritzari buruzko saioa.
22:00. Mailu ta akuilu. Musika.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean (4. denboraldiako bilduma)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Atelier

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. L. Lejeune. Euskal Herria kalea, 24. 943 67 32 74.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendikalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro motela. Goizean zerua estalita agertuko da eta euri pixka bat egingo du. Eguerditik aurrera pixkana atertzen joango da, arratsalde erditik aurrera giro lasaia geratuko delarik eta ostarte txiki batzuk irekiko direlarik. Haizeak ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura maximoak 19-20 gradura igoko dira.

Bihar. Hobetzeko bidea hartuko du. Goizean zaparrada txikiren bat edo beste izango da. Arratsaldeko lehen orduetik aurrera atertu eta ostarte politik irekiko dira. Haizeak iparraldetik joko du eta tenperaturak igo egingo dira, 22-23 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-en eta iritzien erantzukizunik.



HASI DIRA ALTZO AZPIKO OBREKIN

Altzoko Udalak hasi ditu Altzo Azpi Tolosatik Alegiara datorren bidegorriarekin lotzeko lanak. Hiru-lau hilabetez luzatuko diren obrak dira, eta errepidea gurutzatu ahal izateko zebrabide bat jarriko dute semaforo batekin. Bidegurutze hori «arriskutsutzat» du udalak, eta oinezko bide baten bidez lotu egingo dituzte Altzo Azpi eta bidegorria. ENERITZ MAIZ

ZORION AGURRAK

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

Argazkia
bi egun lehenago
ekarri mesedez

ZORION AGURRAK




Urte askoan!

Uztailak 14: urtebetetze eguna, konfinatutako eguna, eskulanetarako eguna.
Uztailak 19: deskonfinatzeko eguna, hamaiketarako eguna.

gorriti | martínez

San Frantzisko pasealekua 14, Tolosa
Tel: 943 650 192
www.gorritimartinez.com



PVC



ALUMINIOA



EGURRA